

HITZ BITAN

OSASUNA. Osakidetzari erditzeko baldintzak hobetzeko eskatu zioten



Haurdunen kontzentrazioa Gurutzetako ospitalean

Haurdun elkarteko hainbat kide bildu ziren atzo goizean Barakaldon (Bizkaia), Gurutzetako Ospitalaren aurrean, Osakidetzari zenbait eskaera egiteko. Elkartekoei Munduko Osasun Erakundeak erditzeko proposatzen dituen adeitasun eta estaldura sanitarioak baldintzetara egokitze eska-

tu zioten Osakidetzari. «Haurdunaldi, erditze, jaiotza eta hazkuntza humanizatuaren» aldeko elkartek erditze garaian emakumeen parte-hartze aktiboa ahalbidetu dezan eskatu zioten, baita ere. Era berean, erditzea bizkortzeko metodoak eta beste hainbat neurri saihesteko galdegin zuten.

URUMEAKO AUTOBIDEA

Ponentziak aurkeztu ibilbidea onartu du Batzar Nagusiak

Ainara Argoitia | DONOSTIA

Manu Gillar ponentziako zuzendariak bere garaian aurkeztu Urumeako autobidearen ibilbidea onartu zuen atzo Gipuzkoako Batzar Nagusiak, EA, EAJ, PP, eta PSOE alderdien aldeko hamaika boturekin. Ibilbide horrek «zer hobeturik baduela» iritzita abstenitu egin zen EH.

GI-131 errepideko trafiko handiak Martutene eta Hernani arteko komunikazioa «ikaragarri zailtzen» duela eta Urumeako autobidea lehenbailehen hasi eta amaitzea adostu zuen atzo Batzar Nagusiak.

Bestetik, iragan udan EH, PSE eta PP alderdien ekimenez eratu ponentziak egindako ekarpena handia izan dela onartu zuten atzo alderdi guztiek, eta hari esker proposatutako lehenengo ibilbidea «asko hobetu» dela esatean ere bat etorri ziren guztiak. *Bikain* ibilbidea «izan zitekeen onena» dela adierazi zuten alderdi guztiek, EHk salbu

—oraindik hobetzerik baduela azaldu zuen—, eta ahalbailehen lanean hasteko eskatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepideak Sailari.

Diputazioak, berriz, ibilbide horren gastuen eta nondik norakoen berri zehatza eman beharko die hala eskatzen duten bizilagunen taldeei.

Eztabaida luze baten osteko erabakia

Urumeako autobidearen ibilbideaz ados jarri aldera bederatzi aldiz bildu da ponentzia, iragan irailaren 25ean eratu zenez geroztik. Horrenbeste eztabaida eta gero bat etorri ziren herenegun Gipuzkoako Foru Aldundia eta Okendotegi Urumeako Autobideak Kaltetutakoan Elkar-tea. Bakoitzak bere gustuko ibilbidea zuen baina azkenean bienekin bat egin eta *Bikain* ibilbidea egitea adostu zuten. Azken batean, Aldundiak aurkeztu *Prointec 1* ibilbidearen «bertsio hobetua» da *Bikain*, azaldu zuen ponentziako zuzendariak atzo..

ISTRIPUA

42 urteko bilbotar bat hil da Santurtzin furgoneta batek eta Bizkaibus autobus batek elkar jo ondoren

G.V.C. 42 urteko Bilboko gizona hil zen atzo Santurtzin, errepide istripuan. Ezbeharra goizeko 07:15ak zirenean gertatu zen N-639 errepidean, Seat Inca furgoneta batek eta Bizkaibus konpainiako autobus batek aurrez aurre jo zutenean. Kolpearen ondorioz, bere furgonetatik irten ezinda gelditu zen G.V.C. Suhiltzaileek atera zuten bertatik baina ordurako hilda zegoen gizona. Ertzaintzak jakinarazi zuenez ezbehar horrek auto ilara luzeak sortu zituen Zierbenerako norabidean.

ALARDEA

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak Hondarribiko Alardean atxilotutakoan espedienteen gaineko erabakia atzeratu du

Joan den urtean Hondarribiko Alardean atxilotutako 52 laguni irekitako espedienteari buruzko deliberoa gibeleratu zuen atzo Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak. Atzo bukatzen zen atxilotuak zigortuko zituztenetz jakinarazteko epea. Iragan irailaren 8an Jaizkibel konpainiaren parte hartzea oztopatzeagatik arrestatutako bozemaleen arau, «erabakia atzeratzearen arrazoia hauteskunde garaian kokatu behar da». Hauen iduriko, zeinahi erabaki «polemikoa» litzateke, eta Barne Sailekoei —Javier Baltza sailburua EAJko hautagai da Araban— ez lieke onurarik ekarriko. Zigorraren prozesua «arrazoi politikoengatik» abiatu zutela eta arrazoi bertsuak direla medio gibeleratu dutela salatu zuten ere irailean atxilotuetakoan eledunek.

BIKOTE EZKONGABEEN LEGEA

Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkartek Espainiako Kongresuan Alderdi Popularrak izandako jarrera salatu du

Gehitu Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkartek ohar bat kalera-tu du, eta bertan Espainiako Diputatuen Kongresuan Bikote Ezkongabeen eskubideen inguruan Nafarroako Parlamentuak aurkeztutako lege proposamenari Alderdi Popularrak emandako ezetza salatu zuten. Gisa berean, «Alderdi Popularrak bikote gay eta lesbiane berdintasun lege bat onartzeko eztabaidari sistematikoki uko egiten dio. Historiaren aurka dihardu», erantsi zuen Gehituk.



DESOBEDIENTZIA ZIBILA

Lau intsumitu epaitu dituzte ekintza baketsu bat egin izanagatik

Gorka Hurtado, Luix Artola, Aitor Aldekoetxea eta Ander Eiguren intsumisoak epaitu zituzten atzo Bizkaiko Auzitegi Pro-bintzian 1998. urtean Sener enpresan egin zuten ekintza baketsuagatik. Fiskaltzak bost hilabeteko isun zigorra eskatu zuen agintaritzari desobeditu eta higiezin usurpazio delituen-gatik. Eiguren ez zen epaiketara izan, izan ere, egun Alcala de Henaresen espetxeratua baitago eraikin militar batean sartzeagatik urtebeko kartzela zigorra ezarri baitzioten.

IMMIGRAZIOA

Arabako Batzar Nagusiak Espainiako Gobernuari Atzeritarren Lege aldatzeko eskatuko dio

«Konstituzioan etorkin guztientzat arautzen diren oinarritzko eskubideak» berma ditzan eskatuko dio Arabako Batzar Nagusiak Espainiako Gobernuari. Hala erabaki zuten atzo Gas-teizen egindako batzarrean onartutako mozioan. PSE-EEren ekimenaren alde bozkatu zuen bakarra EAJ izan zen.

AZOKAK

VII. Xingar Feria egingen dute Baionan apirilaren 12tik 14ra, eta hainbat animazio izanen dira

Baionan Xingar feria iraganen da zazpigarren aldikotz, apirilaren 12, 13 eta 14ean. Erakutsitako xingarren kalitatea kontrolatuz hasiko da feria, eta ondotik egunean zehar animazio ezberdinak egingen dira. Besteak beste, xingar onenak sariztutuko dituzte; sariak 5.000, 3.000 eta 2.000 liberako txekak izanen dira. 1998tik IGP Jatorri Babestuko Izendapenak Baionako xingarren berezitasuna segurtatzen du. Honi esker kontsumitzailea jakinean da xingarra baldintza eta toki zehatz batzuetan prestatua izan dela.

OSASUNA

Markotegiren ustez arrisku gutxi dago Entzefalopatia Espongiformeak gizakiak kutsatzeko

Nafarroako Ingurumen sailburu Javier Markotegik atzo Nafarroako Parlamentuan erran zuenez «oso ttikia da Behien Entzefalopatia Espongiformearen ondorioz biztanleriak giza-entzefalopatia bat garatzeko arriskua». Markotegi Erresuma Batuko Ingurumen Agentziak egin ikerketan oinarritu zen.